DASTAKETA PROFESIONALAK DISEINATU, GAUZATU ETA KOORDINATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da HAZIk administrazio-klausula partikularren agiri honen **Karatularen** (aurrerantzean, Karatula) **1. puntuan** adierazitako zerbitzuak emango dituen kontratista bat hautatzea.

Aipatutako zerbitzuak agiri honen, preskripzio teknikoen agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera emango dira.

Kontratua lotetan banatuta haren zati desberdinak modu independentean gauzatzea aurreikusten bada, **Karatularen 1. puntuan** honako hauek adierazten dira: kontratua zein lotetan banatzen den; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat lotetarako aurkez dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat lote adjudika dakizkiokeen; kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazten da.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea HAZI da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio-organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazitakoa da, eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauen arabera, egokitzat jotzen dituen pertsonei berariazko ahalmena eman ahal izango die kontratuari lotutako jarduketa zehatzak gauzatzeko.

3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio agiri honetan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari (aurrerantzean, eskaintza onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak eskaintzeko aukera, hala badagokio, **Karatularen 3. puntuan** adierazten da.

Aldaerak onartzen badira, **Karatularen 3. puntuan** adierazten dira haien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekiko lotura ere.

5. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentu hauek kontratu-izaera izango dute:

- Administrazio-klausula partikularren agiri honek eta haren Karatulak.
- Preskripzio teknikoen agiriak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazitako beste edozein dokumentaziok.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, haiekin ados dagoela egiaztatzeko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **Karatularen 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazten da.

Era berean, kontratuaren prezioa **Karatularen 6.1 puntuan** zehazten da.

Kontratuaren prezio horrek kontratua gauzatzeko behar diren kostu guztiak hartuko ditu barne, besteak beste, honako hauek, zerrenda adierazgarria izanik eta ez mugatzailea:

- Kontratua gauzatzeko behar diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian aurreikusitakoaren arabera; ez da onartuko aldez aurretik azken prezioan kontuan hartu behar ziren kontzeptuak geroago fakturatzea.

- Kontratua gauzatzeari datxezkion kontzeptu guztiak eta hura gauzatzeko enplegatutako langileei dagozkien gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.), baita tributu guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio- eta joan-etorri gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.

- Kontratistak kontratua gauzatzeko erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- Erakunde kontratatzaileak zehazten dituen lan- edo informazio-bilera guztietara joatea, kontratua behar bezala garatzea eta betetzea ahalbidetzeko.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitako zenbatekoa da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluaren ondorioetarako; lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira (aurrerantzean, SPKL).

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez dio konpromiso zehatzik sortzen erakunde kontratatzaileari.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren ordainduko da.

Kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratistak eskainitako dagokion unitateko prezioa aplikatuko zaie hilabete horretan benetan emandako unitateei.

Erakunde kontratatzaileak hileko zenbateko hori ordainduko du zerbitzuei dagokien hilabetea amaitu eta 30 egun naturaleko epean, baldin eta faktura adierazitako epean jaulki bada eta erakunde kontratatzailearen oniritzia badu.

Ez da ordainduko agiri honetan aurreikusitako kontratuaren xedetik kanpo emandako lan edo zerbitzurik, ezta, hala badagokio, erakunde kontratatzaileak aldez aurretik eskatu ez duenik ere.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean honako hauek argitaratuko dira:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.
- Kontratua formalizatzeko iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profil horretarako sarbidea honako webgune honen bidez izango da: www.contratación.euskadi.eus

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean egindako argitalpenek jakinarazpen ofizialaren ondorioak izango dituzte lizitatzaile eta gainerako interesdun guztientzat, eta, hala badagokio, banakako jakinarazpenak ordeztuko dituzte, berariaz besterik xedatzen ez bada.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, Karatularen 9. puntuan adierazitako zenbatekoarekin.

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko berme hori eratu duela egiaztatu beharko du 10 egun balioduneko epean, Kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin betiko berme horrek SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetako batean eratu ahal izango da, Gordailuen Kutxa Orokorrean eratu beharrik gabe.

Abal bidez ematen bada, agiri honen **I. eranskin** gisa jasotako ereduari egokitu beharko zaio.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Kontratistari eska dakizkiokeen penalizazioak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen kontura gauzatzen badira, kontratistak berme hori birjarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, bermea exekutatu eta hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia sortuko da.

Kontratua aldatzearen ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea doitu beharko du, aldatutako prezio berriarekin behar bezalako proportzioa izan dezan. Kontratistak bermea aldatzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, aldaketa-erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea igaro eta kontratistak kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

Bermea itzuli aurretik, erakunde kontratatzailearen aldeko txostena beharko da.

Klausula honetan aurreikusi ez den guztian, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek kontratatu ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin.

Era berean, lizitatzaileek kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko, hala badagokio, eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahal izango dira soilik haren prestazioak, beren estatutuen edo eratze-arauen arabera, berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan badaude.

Nolanahi ere, erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko gaitasuna izango dute Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek, baldin eta ezarrita

dauden estatuko legeriaren arabera dagokion prestazioa gauzatzeko gaituta badaude; SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak bertan dagokion prestazioa gauzatzeko baimen berezi bat izatea edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko akordioetatik eratorritako Espainiaren betebeharrak aplikatzea eragotzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak, era berean, onartzen duela Espainiako enpresek SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen pareko sektore publikoko erakundeekin egindako kontratazioan parte hartzea, funtsean antzeko moduan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen dagokion Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkeztutako dokumentazioarekin batera erantsiko da.

Horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek kontratatu ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea kontratua haien alde adjudikatu arte; SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Lizitatzaileek Karatularen 10. puntuan adierazitako ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta kaudimen profesional edo teknikoaren gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Hala badagokio, lizitatzaileek Karatularen 10. puntuan adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxiki beharko dizkiote kontratua gauzatzeari, gutxienez.

Horrez gain, lizitatzaileek Karatularen 10. puntuan, hala badagokio, adierazitako berariazko betekizunak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileei kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa eskatzen bazaie, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hura ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

Kontratua suntsiaraztearen ordez, kontratistak kontratua gauzatzeari atxikitako pertsona alde bakarrez aldatzen badu, erakunde kontratatzaileak eskatu ahal izango du konpromisoan adierazitako pertsona berehala atxikitzea edo, bestela, kontratistaz kanpoko arrazoiengatik hori ezinezkoa bada, pertsona hori prestakuntza eta esperientzia berberak dituzten giza baliabideekin berehala ordeztea. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen berariazko adostasuna izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango dira, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta kontratuaren indarraldi osoan kaudimen eta/edo baliabide horiek benetan izango dituztela frogatzen badute eta baliatuko duten erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, EKABaren II. zatiko C atalean).

Horrez gain, eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, beharrezko baliabideak izango dituela frogatu beharko du, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuz (**II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera egina).

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurkeztuko du konpromisoa, 10 egun balioduneko epean, Kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Klausula honetan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzen den unean ere mantendu beharko dira.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunen arabera, salbu eta SPKLren aipatutako xedapen gehigarriaren 3. atalean aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada eta hala adierazten bada **Karatularen 11.1 puntuan**.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta data baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren webgunean adierazita daude, helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak agiri honi eta haren Karatulari, preskripzio teknikoen agiriari eta gainerako kontratu-dokumentazioari egokitu beharko zaizkie; proposamena aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela haien klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo fitxategi elektroniko bakoitzak jarraian adierazitako dokumentuak izango ditu, baita bertan sartutako dokumentuen zerrenda zenbakitu bat ere.

Gutun-azalek honako izen hauek izango dituzte: 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala.

1. gutun-azala. "AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) formularioari egokitutako erantzukizunpeko adierazpena. Formularioa agiri honen **III. eranskin** gisa jasota dago, eta jarraian adierazitakoaren arabera bete beharko da:

    - EKABa Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (UE) 2016/7 Betearazpen Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharko da; erregelamendu horrek Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua ezartzen du.

    - EKABaren "IV. zatia: Hautaketa-irizpideak" atalari dagokionez, lizitatzaileek A atala bakarrik bete beharko dute: "Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra".

    - Lizitatzaileak agiri honen 12. klausularen arabera beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak baliatzen baditu, erakunde horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko du, EKABaren II. zatiko A atalean ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B atalean ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa"), bai eta III. zatian ere, eskatutako informazio egokia jasoz.

- Hainbat enpresaburuk aldi baterako elkarte batean bilduta parte hartzen duten kasu guztietan, parte hartzen duen enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, EKABaren II.etik V.era bitarteko zatietan eskatutako informazioa jasoz.

2. Aldi baterako elkarte batean bilduta parte hartu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, baita esleipendun izanez gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere. Aldi baterako elkarte batean bilduta parte hartu nahi duten enpresaburuek erantzukizun solidarioa izango dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoekin, kontratua azkendu arte, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketen ahalorde mankomunatuak eragotzi gabe.

3. Atzerriko enpresek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute, edozein jurisdikzio-ordenatako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraziz, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

4. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa izendatzea, agiri honen **IV. eranskin** gisa jasotako ereduaren arabera.

OHARRA:

Erakunde kontratatzaileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die egiaztagiri guztiak edo horietako batzuk aurkezteko, 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruz arrazoizko zalantzak daudela uste badu edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa bada.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean ageri bada, hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrekalifikazio-sistema batean, eta aipatutako organoek horietara doan sartzeko aukera badute, ez du aurkeztu beharko leku horietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo bestelako dokumentu-frogarik.

2. gutun-azala. "BALIO-JUDIZIO BATEN BIDEZ KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan.

Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzean, edukiari buruz emandako jarraibideei egokituz. Era berean, ezin izango da eskaintzaren alderdi ekonomikoak iradoki edo ezagutaraz ditzakeen aipamenik egin.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi egingo dira, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Era berean, erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

3. gutun-azala. "FORMULEN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, agiri honen **V. eranskin** gisa atxikitako ereduari egokituta.

Erakunde kontratatzaileak, adjudikazioaren aurretik zein ondoren eta kontratuaren indarraldian, 1., 2. eta 3. gutun-azaletan sartutako dokumentuen edukiaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du; ulertuko da enpresak aurkeztutako datuen eta inguruabarren faltsutasunak kontratuaren deuseztasuna eragin dezakeela, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak, bakoitzari dagokion haztapenarekin, **Karatularen 12. puntuan** adierazitakoak izango dira.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio-organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du; batzorde hori **Karatularen 13. puntuan** adierazitako kideek osatuko dute.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aldez aurretik kalifikatuko du 1. gutun-azalean ("Aurretiazko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa, epe eta modu egokian aurkeztutakoa. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak ikusten baditu, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari horiek zuzentzeko.

Ondoren, 2. gutun-azala ("Balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei baino haztapen handiagoa esleitzen bazaie, balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideak baloratzea **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako batzorde bati egokituko zaio.

2. gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da.

3. gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki aurretik, lizitatzaileei jakinaraziko zaie balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza.

Hori egin ondoren, 3. gutun-azalean ("Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa elektronikoki irekiko da, jendaurreko ekitaldirik egin gabe, lizitazioan bitarteko elektronikoak erabiltzen direlako. Ebaluazio Batzordearen bilkuren aktak erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean argitaratuko dira, legez eskatzen den konfidentzialtasuna errespetatuz.

Ebaluazio Batzordeak 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden proposamenak baztertuko ditu, eta aurkeztutako proposamenen zerrenda igorriko dio Kontratazio-organoari, beheranzko hurrenkeran sailkatuta, **Karatularen 12. puntuan** ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera; eskaintza onena ere identifikatuko du.

Bere proposamena egin aurretik, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuazio onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxua delako presuntzioa badago, **Karatularen 12. puntuan**, hala badagokio, adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazio-proposamenak ez dio eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaileari erakunde kontratatzailearen aurrean. Hala ere, Kontratazio-organoak kontratua egindako proposamenaren arabera adjudikatzen ez badu, bere erabakia arrazoitu beharko du.

17. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

Adjudikaziorako lizitatzailea hautatzeko, Kontratazio-organoak, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenari jarraitu beharko dio. Bestela, Kontratazio-organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoitu beharko du, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egin beharko du.

Kontratazio-organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartu ondoren, erakunde kontratatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio honako dokumentazio hau aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko betekizun guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, jarraian adierazitako moduan.

   Proposamena lizitaziora aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatutako dokumentazioak elkartea osatuko duten enpresa guztiak hartu beharko ditu barnean.

   (i) Lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzeko agiriak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren edo -dokumentuaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egiaztatuko da. Agiri horietan jarduera arautzen duten arauak jaso beharko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko dute, pertsona juridiko motaren arabera.

- Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuen jarduteko gaitasuna ezarrita dauden estatuko legediaren arabera dagokien erregistroko inskripzioaren bidez egiaztatuko da, edo zinpeko adierazpen edo ziurtagiri bat aurkeztuta, aplikatu beharreko Europar Batasuneko xedapenekin bat etorriz.

- Gainerako atzerriko enpresaburuen jarduteko gaitasuna dagokion estatuko Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo enpresaren egoitza bere lurralde-eremuan duen Bulego Kontsularrak egindako txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak, era berean, Espainiako enpresei administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen pareko sektore publikoko ente, organismo edo erakundeekin kontratazioan parte hartzea onartzen diela, funtsean antzeko moduan.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuta egiaztatuko da.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala eskatzen denean, edo, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek erregistroko legelari arduradunak emandako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute, (i) atal honetan eskatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, dokumentuan jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazteko.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

  - Urteko kontu onartuak eta Merkataritza Erregistroan gordailutuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek beren urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute.

  - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, haren negozio-bolumena adierazita.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako kaudimena azken hiru urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrendaren bidez egiaztatuko da; zerrendan zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adieraziko dira. Aipatutako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ontzat emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, halakorik ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten eta haren esku dauden dokumentuekin batera.

  Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna duenean, haren kaudimen teknikoa SPKLren 90.1 artikuluko b) letratik i) letrara bitartean aipatutako bitartekoetako baten edo batzuen bidez egiaztatuko da. Inola ere ez da aplikatuko artikulu bereko a) letran ezarritakoa, zerbitzu kopuru jakin bat gauzatzeari buruzkoa.

- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen batekin batera; adierazpen horretan sailkapena indarrean dagoela eta dagokion ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adieraziko da. Esleipendun izanez gero, adierazpen hori errepikatu beharko da kontratua formalizatzeko dokumentuan.

  Ziurtagiriak egiaztatu beharko du lizitatzailea zehaztutako taldean eta azpitaldean sailkatuta dagoela, aipatutako kategoriaren pareko edo goragoko batean.

Ziurtagiri horrek klausula honen 1. (i) atalean aipatutako inguruabarrak ere egiaztatu ahal izango ditu, hau da, lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, haren ordezkaritza.

(iii) Lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

(iv) Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako betekizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan eskura dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Hala badagokio kontratua gauzatzeari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeari atxikitako taldeko kide guztien izen bidezko identifikazioa, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten curriculum vitae fitxekin batera:

    1. Titulazio akademiko ofiziala.

    2. Dagokion arloko esperientzia.

    3. Hala badagokio, erakunde kontratatzaileak eskatzen duen beste edozein alderdi.

- Giza baliabide horiek guztiak benetan eskura dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Jasota uzten da, datu pertsonalen babesaren arloan aplikagarria den araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, (i) informazio hori biltzea eta erabiltzea lizitatzaile horrek tratamenduaren arduradun gisa egindako datu-tratamendua izango dela; eta (ii) klausula honetan aurreikusitakoa betez erakunde kontratatzaileari ematea lizitatzaile horrek lagatzaile gisa egindako datu-komunikazioa izango dela.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak datu pertsonalen babesaren arloan aplikagarria den arauditik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, aurreko paragrafoan aipatutako datu-tratamenduari eta -

komunikazioari dagokienez. Bereziki, eta tratamenduaren arduradun gisa bete beharreko gainerako betebeharrak eragotzi gabe, hautatutako lizitatzaileak, bere erantzukizun esklusiboaren pean, interesdunen adostasun informatua lortu beharko du, aipatutako datu-komunikazioa gaitzeko; hala eskatzen zaionean, alderdi hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean.

(ii) Hala badagokio kontratua gauzatzeari atxikitzeko konprometitutako baliabide materialei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeari atxikitako baliabide materialen identifikazioa, eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

- Baliabide material horiek guztiak benetan eskura dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

3. Agiri honen 11. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen agiria.

4. Hala badagokio, lizitatzaileak eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpena, **II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu dela egiaztatzea. Aldi baterako elkarteak ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko du, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoekin, kontratua azkendu arte.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak antzemanez gero, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari akats horiek zuzentzeko.

Dokumentazioa aurkezteko errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak baditu, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela. Horrenbestez, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zigor gisa, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du adjudikazioa, eta erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituta. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin izango da inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Hala ere, esleipendunak kontratua eskritura publikoan jasotzea eskatu ahal izango du, dagozkion gastuak bere gain hartuta.

Agiri honen 10. klausulan xedatutakoaren arabera, adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratzeak jakinarazpen ofizialaren ondorioak izango ditu lizitatzaileentzat eta gainerako interesdunentzat, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63. artikuluan eta harekin bat datozen artikuluetan ezarritako baldintzetan.
Kontratua ezin izango da formalizatu argitalpen horretatik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da, kontratua burutu eta gehienez hamabost egun naturaleko epean.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zigor gisa. Zigorra, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontura gauzatuko da, SPKLren 71. artikuluko 2) atalaren b) letran ezarritakoa eragotzi gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz, agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren; hamar egun balioduneko epea emango zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Hari dagokio kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, erakunde kontratatzaileak esleitzen dizkion ahalmenen esparruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotua edo hartatik kanpokoa.

Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:

- Kontratistak kontratua haren baldintzen arabera gauzatuko du, administrazio-klausula partikularren agiri honetan eta haren Karatulan, preskripzio teknikoen agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera, bai eta erakunde kontratatzaileak kontratua interpretatzeko kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera ere.

- Kontratuan bete egin behar dira lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak.

  Testuinguru horretan, balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa biltzen duen 2. gutun-azalean, lizitatzaileek adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei, esleipendun izanez gero. Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarri zaiela kontratistak adierazitako hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

  Horrez gain, kontratistak eman beharko du, kontratua adjudikatu ondoren, langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia.

  Kontratua gauzatzen den denbora guztian, kontratistak aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan langileari dagokion lanbide-kategoriarako jasotako soldata ordaindu beharko du; ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoak gauzatzeko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera du, SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da.

- Erakunde kontratatzaileak edozein unetan eta edozein bitartekoren bidez kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla eta kontratua egoki gauzatzen dela.

  Horretarako, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotzen duen kanpoko laguntza eskatu ahal izango du, kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak egitean kalitate-maila egokia dagoela egiaztatzeko edo auditatzeko.

  Kontratistak zerbitzuekin lotuta erakunde kontratatzaileak eskatzen dizkion datu guztiak emango ditu, beharrezko laguntza guztia emango du inolako kostu gehigarririk gabe, eta kontratatutako zerbitzuekin lotutako lan-arloko, administrazio-arloko edo bestelako dokumentaziorako sarbidea ere erraztuko du.

  Kontratistak ezin izango ditu oztopatu erakunde kontratatzaileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanak.

  Hala ere, erakunde kontratatzaileak edozein motatako ez-betetze edo eragozpen antzematen badu, zuzenean jakinaraziko zaio kontratuaren arduradunari; azken batean, hari egokituko zaizkio zerbitzua ematen duten langileak antolatzeko, gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zehatzeko ahalmenak.

- Langile guztiak kontratistaren mende egongo dira soilik. Kontratista izango da enplegatzaile izateari dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango dituen bakarra, eta ezin izango zaio erakunde kontratatzaileari erreklamaziorik egin lan-harreman horietatik edo gainerako betebeharretatik eratorrita.

  Ondorio horietarako, kontratistak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

  1. Kontratistari bakarrik dagokio kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldea osatuko duten langileak hautatzea; langile horiek agirietan, hala badagokio, eskatutako titulazio- eta esperientzia-betekizunak bete beharko dituzte. Horrek ez du eragotziko erakunde kontratatzaileak betekizun horiek betetzen direla egiaztatzea.

2. Kontratistak ahalegina egingo du lantaldea egonkorra izan dadin eta haren osaeran gertatzen diren aldaketak noizbehinkakoak eta arrazoi justifikatuengatik izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez oztopatzeko, eta une oro erakunde kontratatzaileari horren berri emango dio.

3. Kontratistak bere gain hartuko du enpresa orori datxekion zuzendaritza-ahala benetan, modu eraginkorrean eta etengabe gauzatzeko betebeharra, kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileen gainean.

   Bereziki, bere gain hartuko ditu soldaten negoziazioa eta ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; bajen edo absentzien kasuan langileak ordezkatzea; Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak ordaintzea eta, hala dagokionean, prestazioak ordaintzea barne; laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina-ahala baliatzea; eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

4. Kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzeari atxikitako langileek beren jarduera egitea agirietan kontratuaren xedetzat mugatutako jarduerari dagozkion eginkizunetatik harago joan gabe.

5. Kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du bere plantillako langileen artetik. Haren betebeharren artean honako hauek egongo dira:

   a) Kontratistaren solaskide gisa jardutea erakunde kontratatzailearen aurrean, alde batetik kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen, eta bestetik erakunde kontratatzailearen, arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako gai guztietan.

   b) Lana banatzea kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileen artean, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren lan-aginduak eta jarraibideak ematea.

   c) Lantaldeko langileek esleitutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horien lanposturako asistentzia kontrolatzea.

   d) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen opor-erregimena antolatzea; horretarako, kontratista behar bezala koordinatu beharko

da erakunde kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez oztopatzeko.

e) Erakunde kontratatzaileari jakinaraztea kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran gertatzen diren noizbehinkako edo behin betiko aldaketak.

Kontratista izango da erantzule bakarra kontratua gauzatzen lan egiten duten langileekin, berezkoekin zein balizko azpikontratazioetakoekin, lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala nahiz judizioz kanpokoa). Erakunde kontratatzaileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean edo zeharka bereganatzen duen lan-arloko erantzukizunik (laneko segurtasunari, higieneari eta osasunari buruzkoa barne), ez eta Gizarte Segurantzaren arloko edo zerga-arloko erantzukizunik ere. Era berean, kontratistak bakarrik hartuko ditu bere gain kontratua gauzatzeak eragindako ezbeharretatik erator litezkeen erantzukizunak.

- Kontratistak bere egoitzetan edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, salbu eta Karatulan eta/edo preskripzio teknikoen agirian zerbitzuak erakunde kontratatzailearen egoitzetan edo instalazioetan eman behar direla adierazten bada.

  Kasu horretan, erakunde kontratatzaileak kontratistaren eskura jarriko ditu erakunde kontratatzailearen langileek erabiltzen dituztenetatik bereizitako lan-eremuak. Kontratistari dagokio kontratua gauzatzeari atxikitako langileek esleitutako kokapena errespetatzen dutela zaintzea.

  Kontratuaren xedearen izaeragatik kontratistak zerbitzuak erakunde kontratatzailearen egoitzetan edo instalazioetan eman behar baditu, prestazioa hasi aurretik egiaztatu beharko du kontratua gauzatzeari atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela.

- Kontratistak klausula honen bidez bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz erakunde kontratatzailea kontratistarekin solidarioki zenbatekoak ordaintzera kondenatzen bada, ordaindutako zenbatekoa kontratistari jasanaraziko zaio. Horretarako, erakunde kontratatzaileek beretzat gordetzen dute egokiak eta komenigarriak diren administrazio- edo auzibide-ekintza guztiak gauzatzeko eskubidea, ordaindutako zenbatekoak osorik berreskuratu arte.

- Kontratistak bete beharko ditu pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari dagokionez babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, DBEO) aurreikusitakotik eratorritako

betebeharrak, baita kontratua indarrean dagoen bitartean aplikagarria den datu pertsonalen babesaren arloko beste edozein arautatik eratorritakoak ere, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz, tratamenduaren arduradun gisa, egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei dagokienez.
Aipatutako betebeharra ezartzeak ez du eragotziko **Karatularen 17. puntuan** berariaz ezartzen dena, hala badagokio, erakunde kontratatzailearen kontura egin litekeen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

- Kontratistak **Karatularen 16. puntuan** berariaz adierazten diren baldintzak bete beharko ditu, hala badagokio.

21. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, kontratuko klausuletan, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoari zorrotz lotuta.

- Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea, agiri honen 20. klausulako bigarren marratxoan jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, kontratua gauzatzen den denbora guztian, kontratistak aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan langileari dagokion lanbide-kategoriarako jasotako soldata ordaindu beharko du; ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

- Kontratistaren eskaintzan konprometitutako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak kontratua gauzatzeari atxikitzea.

- Bere kontura lortzea jarduera egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak.

- Zerbitzuak ematea une bakoitzean indarrean dagoen araudi sektorial aplikagarrian xedatutakoari jarraituz. Ondorio horietarako, bai kontratistak bai haren langileek izan beharko dituzte, hala badagokio, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar guztiak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiri guztiak.

- Behin betiko bermea mantentzea eta birjartzea.

- Agiri honen 25. klausulan kontratistari eskatutako berezko estaldurak eta aseguruak kontratatzea edo mantentzea, gutxienez kontratua gauzatzen den bitartean.

- Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea.

- Erakunde kontratatzaileak kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, hala nola laneko edo informazioko bileretara joatea. Betebehar horrek kontratua amaitu arte iraungo du.

- Greba gertatuz gero zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek bermatzen ez badira, erakunde kontratatzaileak zerbitzuak emateko behar diren kontratuak sustatu ahal izango ditu, eta kontratu horien zenbatekoa kontratistaren fakturaziotik kenduko da.

  Greba-aldian, benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa soilik ordainduko da.

- Langileak ordezkatzea, beren eginkizuna behar adinako arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez badute, gaituta ez badaude, zerbitzuak ematean behar adinako arreta jartzen ez badute edo kontratuaren jardun egokiari kalte egiten dioten ekintzak egiten badituzte. Ordezkapena gehienez hogeita lau orduko epean egin beharko da, erakunde kontratatzaileak horretarako errekerimendua egiten duenetik. Langileen ordezkapenek ez diote inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratatzaileari kontratistaren eta ukitutako langileen arteko harremanei dagokienez.

  Langile horiek, jardunean hasi aurretik, dagokien baimena dutela egiaztatu beharko dute.

- Gaixotasun-bajek, oporrek, baimenek, lizentziek, istripuek eta abarrek eragindako lan-absentziak estaltzeko langileak ordezkatzea, kontratatutako zerbitzuak benetan eta etenik gabe ematea bermatuz. Ordezkapena gehienez hogeita lau orduko epean egin beharko da.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeari buruzko Jarraibidearen VII. eta VIII. atalak betetzea. Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 5eko bilkuran onartu zuen jarraibide hori, eta 2019ko maiatzaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 87. zenbakian argitaratu zen. Emandako dokumentu guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Aipatutako Legearen babesean, argitara litezkeen

irudietan ez dira pertsonak erakutsiko beren sexuaren arabera giza duintasun txikiagoa edo handiagoa duten pertsona gisa, ezta sexu-objektu huts gisa ere; estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexuaren, rolen eta genero-identitatearen aniztasuna sustatuko da.

- Berdintasun-planari dagokionez, 50 langile edo gehiago dituzten enpresek berdintasun-plana izan behar dute, baita lan-agintaritzak ezarritako zehapen baten ondorioz edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak hala ezartzen duelako horretara behartuta dauden enpresek ere (3/2007 Lege Organikoaren 45. art.; martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. art.).

- Zerbitzua emateak enpresa esleipendunak kontratuaren eskura jartzen dituen langileen eta herritarren arteko harreman zuzena badakar, enpresa horrek bermatu beharko du herritarrekiko harremanak dakartzaten zereginak egiteko zerbitzuaren eskura jartzen dituen pertsonek nahikoa gaitasun dutela beren zereginak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko. Aurreko guztia, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 13.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- Esleipendunak une oro errespetatu beharko du arau-maila guztietan aplikagarria den legedia (Europar Batasunekoa, estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa), bai lanak hasten direnean indarrean dagoena, bai kontratua indarrean dagoen bitartean aldarrikatu eta aplikagarri izan daitekeena. Horregatik, kontratuan aurreikusitako lanak egitean eragina izan dezaketen ingurumen-betekizunak ezagutu beharko ditu. Era berean, bere baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko ditu, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko.

- Datu pertsonalen babesaren arloan bete beharreko betebehar guztiak betetzea eta betetze hori behar bezala egiaztatzea, agiri honetan, Karatulan eta/edo arlo horretan aplikagarria den legedian aurreikusitakoaren arabera.

- **Karatularen 15. puntuan** berariaz adierazten diren betebeharrak betetzea, hala badagokio.

Klausula honetan eta **Karatularen 15. puntuan** aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira, SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak bete beharko ditu bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz, tratamenduaren arduradun gisa, egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen ondorioz

honako arau hauetatik eratortzen zaizkion betebeharrak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO), eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatzekoa den datu pertsonalen babesaren arloko beste edozein arau.

Aipatutako betebeharra ezartzen da **Karatularen 16. puntuan**, hala badagokio, erakunde kontratatzailearen kontura egin daitekeen datu pertsonalen tratamenduari buruz berariaz ezartzen dena eragotzi gabe.

Lizitatzaileen ordezkari diren pertsona fisikoen identifikazio- eta harremanetarako datu pertsonalak, zerbitzua emateko behar diren lantaldeak osatzen dituzten pertsonen datu pertsonalak eta, hala badagokio, kontratuaren xede diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den datu horien lagapena haien artean ezarritako kontratu-harreman juridikoan oinarrituta kudeatuko dira, Datuak Babesteko 679/2016 (EB) Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikuluan aurreikusitako datu pertsonalen tratamendua egiteko gaikuntza-titulu gisa, baita arau bereko 6.1.c) artikuluan jasotako legezko betebeharrak betetzean oinarrituta ere.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitakoa eta adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLn jasotako xedapenak eragotzi gabe, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek emandako informazioa, baldin eta eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo badute. Konfidentzialtasunak, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen edukia duten beste edozein informaziori eragiten die, bai lizitazio-prozedura honetan, bai ondorengo beste batzuetan.

Kontratistak errespetatu beharko du kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren izaera konfidentziala, baldin eta agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo bere izaeragatik halakotzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar horrek **Karatularen 17. puntuan** adierazitako epean iraungo du.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratista arduratuko da garatzen dituen lanen eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaz, bai eta kontratua gauzatzean izandako omisio, akats,

metodo desegoki edo ondorio okerrek erakunde kontratatzailearentzat edo hirugarrenentzat dakartzaten ondorioez ere.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea.

25. ASEGURUAK

Kontratistak bere kontura kontratatuko ditu **Karatularen 19. puntuan** adierazitako aseguruak, kontratuaren iraupen osorako, puntu horretan bertan adierazitako baldintzetan.

26. ZIGORRAK

a) Atzerapenagatiko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, agiri honetan eta/edo Karatulan ezarritako epeetako edozein betetzean atzerapena izan badu, erakunde kontratatzaileak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, agiri honen 33. klausulan ezarritako baldintzetan, edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira **Karatularen 20. puntuan** adierazitako zigorrak, dagozkion kalte-galeren ordain guztiez gain.

Kontratista berandutze-egoeran jartzeko, ez da erakunde kontratatzailearen aldez aurretiko errekerimendurik beharko.

b) Kontratatutako prestazioak modu akastunean gauzatzeagatiko edo beste edozein kontratu-baldintza ez betetzeagatiko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak modu akastunean gauzatu baditu edo beste edozein kontratu-baldintza bete ez badu, erakunde kontratatzaileak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, agiri honen 33. klausulan ezarritako baldintzetan, edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira **Karatularen 20. puntuan** adierazitako zigorrak, dagozkion kalte-galeren ordain guztiez gain.

Zigorrak gauzatzeko, kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduko dira, edo bermearen kontura kobratuko dira, zenbateko horietatik kendu ezin badira; bermea gainditzen duen zenbatekoa dagokion erreklamazioaren bidez eskatuko da.

Nolanahi ere, bai kontratua suntsiaraztea aukeratzen bada, bai harekin jarraitzea aukeratzen bada, erakunde kontratatzaileak aldebakarrez erabaki ahal izango du kontratuarekin jarraitzea beharrezkotzat jotzen duen denboran, bere baliabideen edo hirugarrenen baliabideen bidez. Bi kasuetan, jarraipen horren kostua kontratistari jasanaraziko dio, klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren ordainak eta gainerako ondorioak eragotzi gabe.

Zigorrak gauzatzeko, kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduko dira, edo bermearen kontura kobratuko dira, zenbateko horietatik kendu ezin badira; bermea gainditzen duen zenbatekoa dagokion erreklamazioaren bidez eskatuko da.

Nolanahi ere, bai kontratua suntsiaraztea aukeratzen bada, bai harekin jarraitzea aukeratzen bada, erakunde kontratatzaileak aldebakarrez erabaki ahal izango du kontratuarekin jarraitzea beharrezkotzat jotzen duen denboran, bere baliabideen edo hirugarrenen baliabideen bidez. Bi kasuetan, jarraipen horren kostua kontratistari jasanaraziko dio, klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren ordainak eta gainerako ondorioak eragotzi gabe.

27. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak iturri baimenduetatik eta bere kontura soilik eskuratu beharko ditu edozein erabilera- eta/edo ustiapen-lizentzia eta eskubide, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoaren arabera kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko atxiki, jarri eta/edo mantendu behar dituen ekipo informatikoen (hardwarea eta softwarea) edo beste edozein motatako ekipoen eta/edo baliabide osagarrien gainean.

Halaber, SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa oso-osorik aplikatuko zaio kontratazio honi. Horrenbestez, kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzearen emaitzaren jabetza, osorik nahiz edozein fasetan, erakunde kontratatzailearena izango da esklusiboki. Horrek ez ditu eragotziko kontratistari egoki lekizkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzailetzat aitortua izateko eskubidea, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera; erakunde kontratatzaileak behar bezala errespetatu beharko ditu eskubide horiek.

Ondorioz, eta **Karatularen 18. puntuan**, hala badagokio, berariaz ezartzen dena eragotzi gabe, kontratistak kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua bermatu beharko dio erakunde kontratatzaileari. Horretarako, hala badagokio, emaitza horren osagai den edozein elementuren gaineko lizentzia eta eskubide egokiak zilegitasunez eta iturri baimenduetatik eskuratu beharko ditu, eta emaitza entregatzean adierazi beharko du haren gainean ez dagoela kontratazio honen bidez erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideei kalte egiten dien inolako konpromisorik edo kargarik.

Nolanahi ere, kontratista izango da kontratutik kanpoko hirugarrenek jabetza intelektualari eta/edo industrialari buruz egin ditzaketen erreklamazio guztien erantzule, honako hauei dagokienez:

- Zerbitzuak ematean jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideek babestutako materialak, tresnak eta gainerako lanabesak erabiltzea.

- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta/ emaitza horren osagai den edozein elementu.

Aurrekoa kontuan hartuta, kontratistak kalte-ordaina eman beharko dio erakunde kontratatzaileari kontzeptu horiei buruzko erreklamazioek eragin diezazkioketen kalte-galera guztiengatik.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

SPKLren 98. artikuluko kontratistaren ondorengotza-kasuetatik kanpo, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratu-lagapenaren bidez soilik egin ahal izango da, klausula honetan ezarritako mugen barruan eta betiere aukera hori **Karatularen 21. puntuan** berariaz aurreikusita badago.

Lagapena egiteko, SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan eskatutako baldintzak bete beharko dira, hau da:

a) Kontratazio-organoak lagapena aldez aurretik eta berariaz baimentzea, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da; epe hori igarotakoan, baimena emantzat jo beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta izatea, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izatea, eskatutako ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala izatea, eta kontratatzeko debekuren batean sartuta ez egotea, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d) Lagapena esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean eskritura publikoan formalizatzea, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera, **Karatularen 22. puntuan**, hala badagokio, adierazitako prestazioak izan ezik.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, hura gauzatzen hasten denean. Jakinarazpenean adierazi beharko ditu azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak. Era berean, behar bezala justifikatu beharko du azpikontratistak prestazioa gauzatzeko duen gaitasuna, dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia aipatuta, eta egiaztatu beharko du ez dagoela kontratatzeko debekuren batean sartuta, SPKLren 71. artikuluaren arabera.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari informazio horrek kontratu nagusia gauzatzean izan dezakeen edozein aldaketa, bai eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, inguruabar hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratazioa beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati edo premiazko neurriak eskatzen dituen egoera bati erantzuteko, eta hori behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean soilik egongo dira behartuta; beraz, kontratista nagusiak kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa hartuko du bere gain erakunde kontratatzailearen aurrean, agiriak eta kontratuaren baldintzak zorrotz betez, SPKLren 201. artikuluan aipatutako ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea, bai eta ordainketa horiek egiaztatzea ere, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da.

30. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Horrez gain, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatularen 23. puntuan** aukera hori berariaz adierazten denean, puntu horretan aurreikusitako baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezin izango dute ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berriak ezartzea.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

31. HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da prestazio osoa egin duenean, kontratuaren baldintzen arabera eta erakunde kontratatzailearen gogobetetasunerako.

Harrera partzial bakoitzean, hala badagokio, bai eta harrera osoa egitean ere, erakunde kontratatzaileak zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa bat datorren hura gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin. Hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta harrera egitean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo gabezien ondorioz, erakunde kontratatzaileak prestazioa baztertu ahal izango du; kasu horretan, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Horrek ez du eragotziko 26. klausulan aurreikusitakoa; erakunde kontratatzaileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita atzerapenagatik, kontratatutako prestazioak modu akastunean gauzatzeagatik eta/edo beste edozein kontratu-baldintza ez betetzeagatik dagozkion kalte-galeren ordainak ere.

Berme-epea **Karatularen 24. puntuan** adierazten da.

Aipatutako berme-epean egindako lanetan akatsak edo gabeziak daudela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko.

Berme-epea amaitzen bada erakunde kontratatzaileak klausula honetan aipatutako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, kontratista egindako prestazioagatiko erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, betiere kontratistari SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-galerak ordaintzen badizkio; artikulu hori berariaz aplikagarritzat ezartzen da ondorio horietarako.

33. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua azkenduko da betetzen denean edo jarraian araututakoaren arabera suntsiaraztea erabakitzen denean.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira, erakunde kontratatzaileak hala erabakitzen badu:

a) Konkurtso-deklarazioa edo beste edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratistak epeak betetzean atzerapena izatea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betiere halakotzat jo badira.

e) Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan gauzatu ezin izatea, agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kontratua aldatu ezin denean.

f) Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratistak hura gauzatzen parte hartzen duten langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horiei aplikatzekoak zaizkien hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, hori ere kontratua gauzatzen den bitartean.

g) Oro har, kontratu-betebeharren edozein ez-betetze, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

h) SPKLren 313. artikuluko 1. atalean ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoiak, berariaz aplikagarritzat jotzen direnak, honako hauek izanik:

    1. Zerbitzuak ematen hasi aurretik atzera egitea, edo, kontratazio-organoari egotz dakiokeen arrazoi batengatik, kontratuaren hasiera

etetea, kontratuan hasteko ezarritako datatik lau hilabetetik gorako epean.

2. Zerbitzua ematen hasi ondoren atzera egitea, edo kontratazio-organoak kontratua zortzi hilabetetik gorako epean etetea erabakitzea.

Klausula honetan aurreikusitako suntsiarazteko arrazoietako edozein gertatzen bada, kontratua automatikoki suntsiaraziko da, erakunde kontratatzaileak kontratistari horretarako erabakia modu frogagarrian jakinaraztea beste betekizunik gabe.

Jakinarazpen hori jasotakoan, kontratistak berehala entregatu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, haren esku jarrita, kontratatutako prestazioak egiteko ordura arte prestatutako dokumentu guztiak, bai eta kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa ere, erabili diren eta erakunde kontratatzaileak kontratistari eman dizkion dokumentuekin batera; dokumentu horiek guztiak erakunde kontratatzailearen jabetzakoak izatera igaroko dira.

Horrek ez du eragotziko ondoren kontratuaren likidazio ekonomikoa egitea, dagokion moduan, jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik kontratua suntsiarazteak sor ditzakeen erantzukizun ekonomikoak, bai eta legez bidezkoak izan daitezkeen beste edozein arrazoiren ondoriozkoak ere, kontratua benetan suntsiarazi ondoren likidatuko dira; horrek ez du eragotziko erakunde kontratatzaileak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratua suntsiarazten den kasu guztietan, kontratistak, printzipioz, benetan egin dituen eta onartu diren prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik kontratua suntsiarazten denean, erakunde kontratatzailearen alde sortuko da **Karatularen 25. puntuan** aurreikusitako zenbatekoa, dagozkion kalte-galeren ordain guztiez gain eta haiei metatuta. Bi zenbatekoak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeko dagoen preziotik kenduko dira, eta gainerako zenbatekoa dagokion erreklamazioaren bidez eskatuko da.

Aurrekoa gorabehera, SPKLren 313. artikuluko 3. atalaren aplikazioa berariaz ezartzen da, hau da:

a) Klausula honetako h.1 letran aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZik gabe) soilik jasotzeko eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik.

b) Klausula honetako h.2 letran aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak eman gabe geratutako zerbitzuei dagokien kontratuaren

adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, industria-mozkin gisa (BEZik gabe).

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratatzailearen eta kontratistaren arteko adostasunez; kasu horretan, alderdien eskubideak haiek balioz hitzartutakoari egokituko zaizkio.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da. Prestaketari dagokionez, administrazio-klausula partikularren agiri honen eta preskripzio teknikoen agiriaren arabera arautuko da; adjudikazioari dagokionez, administrazio-klausula partikularren agiri honen, preskripzio teknikoen agiriaren eta, horietan aurreikusi gabekoari dagokionez, SPKLn horretarako ezarritako arauen arabera arautuko da (botere adjudikatzaile diren eta administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetarako arauak).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, kontratua administrazio-klausula partikularren agiri honen, preskripzio teknikoen agiriaren eta, horietan aurreikusi gabekoari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauen arabera arautuko da. Hala ere, SPKLren 319. artikuluan «Ondorioak eta azkentzea» gaiari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari.

Horrez gain, SPKL eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikatuko dira agiri honek arau-testu horietara berariaz igortzen duen guztian.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da kontratuaren prestaketari, adjudikazioari eta aldaketei buruzko auziak ebazteko eskuduna, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen denean, aldaketa hori adjudikazio berri baten xede izan behar zela ulertzen bada.

Hala badagokio, errekurtsoa aurkeztuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskuduna, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

I. eranskina. Abal-eredua.

[…] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen sozietate-izena), IFK […] eta egoitza […](e)n dituenak (jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako), bere izenean jarduteko eta egintza honetan erakundea behartzeko behar adina ahalorde dituen […](r)en bidez (ahaldunen izen-abizenak), dokumentu honen behealdean aipatutako ahalordeen askiespenetik ondorioztatzen denez, HONAKO HAU ABALATZEN DU: […] (abalatuaren izen-abizenak edo sozietate-izena), IFK […], […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoan, […] kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abal hau betebehardun nagusiarekiko solidarioki ematen da, eskusio- eta banaketa-onurei berariaz uko eginez eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k hura ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

II. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua, lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duen kasurako.

[OHARRA: Lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu badu eta eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu soilik aurkeztu behar da. ***Hirugarren erakundeak bete behar du****]*

[…] jaunak/andreak, NAN […] duenak, […] enpresaren legezko ordezkari gisa (IFK: […]), adierazten du ezagutzen dituela […] kontratatzeko lizitazioaren baldintzak beren irismen osoan, zeinetara […] lizitatzailea (enpresa lizitatzailearen izena) aurkezten baita, eta adierazten du borondate ezeztaezina duela lizitatzaile horren esku kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzeko, esleipendun izanez gero. Berariaz onartzen du Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta baliabide horiek ordezteko edo aldatzeko […](e)k berariazko baimena eman beharko du.

Idazki hau […](r)i aurkezteak konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu, lizitatzaile hori esleipendun gertatzen den kasurako.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

III. eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

OHARRA: Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) fitxategi elektroniko gisa txertatuta dago lizitazio-plataforman bertan, eta lizitatzaileek bete eta aurkeztu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez.

IV. eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bidea izendatzea.

[…] jaunak/andreak, helbidea […](e)n eta NAN zk. […] dituenak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (helbidea […](e)n eta NAN edo IFK zk. […]), bere gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren jabe oso izanik, […] lizitazioaren berri izanda, idazki honen bidez honako hau izendatzen du lehentasunezko bide gisa […](e)k lizitazio hau dela eta egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko (*):

□ **Posta elektronikoa**.

□ **Posta ziurtatua**.

□ **Faxa**.

(*) Adierazi izendatutako bidea.

Nolanahi ere, jakinarazpenetarako, honako datu hauek adierazten dira:

Posta elektronikoko helbidea: …….

Posta-helbidea: ……..

Fax-zenbakia: ……..

Harremanetarako telefonoa(k): ……..

[Oharra: Jakinarazpenak arintzeko, lizitatzailearen posta elektronikoa lehentasunezko bide gisa izendatzea gomendatzen da; bide hori guztiz baliozkoa izango da jakinarazpenetarako, lizitatzaileak berak adierazitakoa delako. Hala ere, beste bide bat lehentasunezkotzat izendatzea onartzen da. Izendapen hori egiten ez bada, jakinarazpena posta ziurtatuz egingo da, adierazitako helbidean.]

V. eranskina. Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak, helbidea […](e)n eta NAN zk. […] dituenak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (helbidea […](e)n eta NAN edo IFK zk. […]), bere gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren jabe oso izanik, […] prozeduraren bidez […] kontratatzeko lizitazioaren berri izanda, idazki honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. […] kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatzeko konpromisoa hartzen duela:

   - EAEn egindako dastaketaren prezioa…… euro (BEZik gabe).
   - EAEn produktuarekin uztartutako dastaketaren prezioa… euro (BEZik gabe).
   - EAEtik kanpo egindako dastaketaren prezioa…… euro (BEZik gabe).
   - EAEtik kanpo produktuarekin uztartutako dastaketaren prezioa.. euro (BEZik gabe).

   - Genero-berdintasuna.
   - Hizkuntza-gaitasuna.
   - Atxikitako pertsonen lanbide-gaikuntza eta antzeko ekitaldietan duten esperientzia

2. Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz oso-osorik bere gain hartzen eta betetzen duela.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]